

EUSKO LEGEBILTZARRA. Imazek eta Knörrek uko egin diote Sozialista Abertzaleekin akordioa lortzeari

Edurne Begiristain | GASTEIZ

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Sozialista Abertzaleak taldeak kontrako botoa emango dio Batzar Nagusietako hauteskunde legea aldatzeko EAJk eta EAK aurkezturiko proposamenari, bi talde horiek beren ekimena moldatzen ez badute, behinik behin. Sozialista Abertzaleak taldeak lege erreformaren bozketan izango duen jarra argitu zuen atzo Antton Morcillo legebiltzarkideak, Arnaldo Otegiarekin batera, Eusko Legebiltzarrean eginiko agerraldian.


Sozialista Abertzaleak taldea hauteskunde legea aldatzearen alde dagoela argitu zuen Morcillok, baina ez EAJk eta EAK proposatu duten moduan, «arbitrarioa delako eta hauteskunde interesari erantzuten diolako». Izan ere, Morcilloren aburuz, bi alderdi horiek egindako proposamenarekin Arabako koadriren proportzionaltasuna ez da errespetatzen, eta leku batean zein bestean finkatu dituzten biltzarkide kopurua «alderdi interesen arabera egin dute».

Hartara, legearen aldaketa babesteko, Sozialista Abertzaleak bi irizpide kontuan hartzea ezinbestekoa jotzen duela argitu zuen Morcillok: Arabako zazpi koadriek ordezkariak izatea batetik, eta banaketa hori modu proportzional batez egitea, bestetik. Gauzak hala, bi oinarri horiek kontuan hartuz gero, erreforma aldatzeko prest legoke Sozialista Abertzaleak taldea, eta negoziatzeko deia egin zien EAJri eta EARI.

Akordiorik lortu ezean, Sozialista Abertzaleak bere proposamen propioa defendatuko duela ohartarazi zuen Morcillok, eta erabat baztertu zuen EAJ eta EAren proposamenaren abstentzioaren bidea aukeratzea. «Abstentzioa ez hanka ez buru-

EAJk eta EAK proposamena moldatu ezean, SAK ez du onartuko legearen aldaketa

Proporzionaltasun printzipioa errespetatzeko eskatu die Morcillok



rik duen proposamen bati txeke zuria ematea litzateke», esan zuen.

Horretaz gainera, Morcillok EAJri gogorazi zion «hogei urte» izan dituela hauteskunde legea aldatzeko, baina ez duela egin. Era berean oroitarazi zion PSOE egungo legearen bultzatzailetako bat izan zela eta harekin gobernu akordioa egin zutela, baina horregatik ez zela «inolakako krisirik» sortu.

Bestalde, Arnaldo Otegi legearen erreforma planteatzen den testuinguru politikoa azpimarratu zuen. Aldaketaren eztabaida Batasuna legez kanpo utzi nahi denean egiten dela gogorazi zuen, eta «benetako eztabaida» horixe dela iritzi zion: «Ezin da ordezkartzaren inguruko eztabaidarik egin alderdi politiko batek ezin izango duenean hauteskundeetan aurkeztu».

Beste hausnarketa bat ere egin zuen, hots, alderdi espainolistei «irabazterik» ez dagoela ezker abertzalearekin ez bada. Eta ildo horretan EAJri eta EARI leporatu zion «errealak» ez diren kontuak egiten ari direla.

Knörren eta Imazen ezetza

Sozialista Abertzaleak taldeak erreforma hitzartzeko egin proposamena arbuaiatu zuten EAJk

ESANAK

ANTTON MORCILLO
(Sozialista Abertzaleetako legebiltzarkidea)

«EAJren eta EAren proposamena arbitrarioa da, eta alderdien interesari erantzuten die»

ARNALDO OTEGI
(Sozialista Abertzaleetako legebiltzarkidea)

«Ezin da ordezkartzaz mintzatu, Batasunak hauteskundeetara aurkezterik ez baitu izango»

GORKA KNÖRR
(EAKo legebiltzarkidea)

«Batasunak badaki zein den muga akordioak erdiesteko»

eta EAK. «Batasunak jakin badaki zein den muga haiekin akordioak erdiesteko», adierazi zuen EAKo legebiltzarkide Gorka Knörrek. Talde abertzalearekin negoziatzeko prest agertu zen, baina indarkeria gaitzetsi arte ezer ez dutela hitzartzeko ohartarazi zuen. Josu Jon Imaz Eusko Jaurlaritzako bozeramaileak ere ildo beretik jo zuen, eta giza eskubideen defentsa «irmoa» baldintza gisa jarri zuen akordioak lortzeko.

EPK alderdiak —Ezker Batua barnekoa— EAJren eta EAren «trikimailuak» kritikatu zituen atzo prentsa ohar batean, eta hauteskunde interesak izatea leporatu zion bi alderdiei.

Hauteskunde Legearen aldaketarako ekimena ez da premiaz bideratuko

E.B. | GASTEIZ

EAJk eta EAK hauteskunde legea aldatzeko Eusko Legebiltzarrean aurkeztutako lege proposamena ohiko bidetik tramitatuko da, eta ez premiazko prozeduraz. Hala erabaki zuen atzo Eusko Legebiltzarreko Mahaiak, PPK eta PSE-EEK ekimena bideratzearen kontra bozkatu zuten arren.

Iragarri bezala EB-IUk premiaz bideratzearen kontra bozkatu zuen, baina ez

zuen oztoporik jarri proposamena aintzat har zedin. Modu horretan, zaila izango da maiatzaren 25eko hauteskundeetan indarrean jartzeko legea garaiz onartzea.

Edonola ere, PPK eta PSE-EEK gogor kritikatu zuten ekimena bideratu izana eta Espainiako Konstituzioa urratzen duela salatu zuten. EB-IU aldaketaren aurka agertu bazen ere, iritzi zion ez dagoela aitzakiarik hauteskundeetan atarian premiaz bideratzeko.

euskara ikasi nahi duzu?

02-03-IKA
otsailean kurtso berriak

EUSKARA IKASTAROA
EGA eta MINTZA
METODOLOGIA KOMUNIKATIBOA
IKASLEAREN LIBURUAK
KULTUR EKINTZAK
GIRO APARTA

MATRIKULA EPEA ZABALIK
*HABEren diru laguntzaz antolatuta

matrikula zaitetz

A. Campion - 948 22 22 46 Lesaka - 948 63 77 96
Errioxa - 941 60 10 87 Gasteiz - 945 15 43 41

elkar ulertzeko